

aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2022ko otsaila

04-05

2022RAKO LEHENTASUNAK

Prioridades para el 2022

06-07

INBERTSIO NAGUSIAK

Inversiones principales

10-13

AZKEN BERRIAK

Actualidad tolosarra

15

AGENDA

¿Qué quieres hacer?



2022, INBERTSIOEN URTEA

Recuperación, reactivación y desarrollo de proyectos

02. or.

INOIZKO AURREKONTURIK INDARTSUENA

Tolosako Udalak 34.512.762 euroko aurrekontua kudeatuko du 2022an. Inoizko aurrekonturik indartsuena da, eta Tolosa indarberritzera, eraldatzera eta hobetzera zuzendutako proiektuak garatzera bideratuko da aurrekontu hori. Gizarte ongizatean, berdintasunean, kulturaren eta hiri-ekonomiaren sustapenean, eraldaketa digitalean, garapen jasangarrian eta gobernantza kolaboratiboan jarriko da azpimarra nagusia.

2022a inbertsioen urtea izango da Tolosako Udalarentzat, eta herria biziberritzea, errekupeazioa sustatzea eta legegaldiko konpromisoei erantzutea izango da helburua. Horretarako, dirulaguntza guztiak mantendu egingo dira, batzuk areagotu ere bai, udal zerbitzuen egitura indartu egingo da, batez ere gizarte zerbitzuen alorrean, eta inbertsio gaitasuna ere handitu egingo da, sei milioi baino gehiago bideratuko baitira alor horretara, 2021ean baino 5,4 milioi gehiago.

Aurrera begira ere lanean jarraituko du Udalak, eta etorkizuneko proiektuen oinarriak ere landuko ditu, orain arte bezala, gertutasunetik lan eginez, herritarrekin elkarlanean aritzeko konpromisoa berretsi baitu, gobernantza eredu berrietan sakontzeko proiektuekin.


El Ayuntamiento de Tolosa contará en 2022 con un presupuesto de 34.512.762 euros. Es un presupuesto ambicioso, destinado a reforzar los servicios prestados, reactivar Tolosa y llevar a cabo los proyectos previstos con el objetivo de mejorar y transformar Tolosa poniendo especial énfasis en el bienestar social, la igualdad, la promoción de la economía y la cultura, la transformación digital, el desarrollo sostenible y la gobernanza colaborativa.

Para el Ayuntamiento de Tolosa, 2022 será el año de las inversiones, que tendrán como objetivo promover la recuperación y la reactivación, y responder a los compromisos adquiridos con la ciudadanía en esta legislatura. Para ello, se mantendrán todas las ayudas, algunas incluso se han aumentado, se reforzará la estructura de los servicios municipales, de forma significativa en el ámbito social, y se incrementará la capacidad de inversión; el Ayuntamiento dispondrá de más de 6 millones de euros, 5,4 millones más que en 2021.

Además de las iniciativas y los trabajos previstos, el Ayuntamiento seguirá trabajando las bases de proyectos de futuro, trabajando como hasta ahora desde la cercanía y la colaboración, profundizando en nuevos modelos de gobernanza.

AURREKONTUAREN BANAKETA

Egungo zein etorkizuneko beharrei aurre egiteko aurrekontua.



Guztira 34.512.762 € en total

Helburuak / objetivos:



2022RAKO LEHENTASUNAK



Prioridades: seguir ofreciendo una atención de calidad, reforzar los servicios prestados y mejorar y transformar Tolosa llevando a cabo los proyectos previstos

Kalitatezko arreta eskaintzen jarraitzeko, zerbitzuak sendotzeko eta Tolosa hobetzeko eta eraldatzeko proiektuak garatzeko aurrekaririk gabeko aurrekontu proiektua izango du Tolosak aurreten. Aurrekontuaren:

- % 41** zerbitzuak indartzera bideratuko da.
- %32** giza baliabideen alorrera, herritarrei kalitatezko arreta bermatu eta udal lanpostuak egonkortzeko.
- %19** inbertsioetara, aurreikusitako proiektuak garatzeko.

Honako hauek izango dira lehentasunezko alorrak:



Gizarte ongizatea / *bienestar social*: 3 milioi

Tolosarrak eta haien ongizatea, gizarte kohesioa eta berdintasuna, udal politiken erdigunean jarriko dira, desberdintasun sozialei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, pertsonen zaintza erdigunean jarrita. Besteak beste, zerbitzu eta laguntza hauetara bideratuko da aurrekontua: etxez etxeko arreta zerbitzua, zerbitzu sozioedukatibo eta psikosoziala, larrialdietarako laguntzak, dirulaguntzak familiei, zentro soziala, eta komunitate etxebizitzak, eta Eguneko Arreta Zerbitzua. Zaintzaileak zaintzeko proiektu berria ere garatuko da.

Berdintasuna / *igualdad*: 1 milioi

Tolosa berdinzaleago baten alde, urrats garrantzitsua egingo da Emakumeen Etxea eraikita.

Kulturaren sustapena / *impulso a la cultura*: 3,6 milioi

Tolosak berezkoa duen berezitasuna, erreferentzialtasuna eta jarduera berreskuratzea izango da helburua, kultur eta kirol arloan. Tolosa bizia eta euskalduna sustatzeko egingo da lan.

Ohiko jarduerak aurrera eramateaz gain, iaz martxan jarritako ekimenak mantendu egingo dira: Kultura Plazara eta ToloFolk jaialdiak.



Hiri ekonomia indartzea / *reforzar la economia local*: 1 milioi

Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreekin elkarlanean jardungo da eta azokaren eraldaketa fisiko zein digitala sustatzeko egitasmoak egingo dira eta Azoka Lagunak proiektuaren indartzea bultzatuko da ekonomiaren ekosistema osoari eusteko. Elikaduraren alorrean, ekintzaitza sustatzeko proiektu berria jarriko da martxan, eta takila adimentsuak eta wifia instalatuko dira azokan.



Jasangarritasuna / *sostenibilidad*: 2,7 milioi

Herritarren ongizatea hobetzeko proiektuak gauzatuko dira, inbertsio gaitasuna handituta, hiri atsegina, jasangarria eta irisgarria eraikitzeko, eta tokikotasunetik aldaketa klimatikoari erantzuteko. Trantsizio energetikoa sustatzen jarraitzeko eguzki plaka berriak eta led argiak jarriko dira kale argiterian, udal eraikinetan eta Txaramako bidean. Agenda 2030 proiektuaren garapen modura, Biodibertsitate Eskola ere indartuko da.

INBERTSIO NAGUSIAK



ABEGI
368.000 €



Eguzki plakak
eta led argiak
333.000 €



Gorriti
544.000 €



Usabal 3. fasea
960.000 €



Zumarditxiki
500.000 €



Arkauteko
teilatua eta
proiektua
175.000 €



San Esteban,
berroneratzea
100.000 €



Emakumeen etxea
345.000 €



Apeadero
irigarritasuna,
Montesku
aizorako sarbidea
100.000 €



Araba etorbidea:
plaza
baten eraberritzea
100.000 €



Zezen plaza:
4. Fasea
820.000 €



Leidor: eszena-
toki berria
25.000 €



Landa auzoak
32.200 €



Azoka: takila
adimentsuak
eta wifia
32.200 €



Haur jolastokiak
100.000 €



Etxebizitza
hutsen
zaharberritzea
alokairuan
jartzeko
70.000 €



Trianguloko
zorua berritze-
ko proiektua
50.000 €



Belate-Larramendi
berritze ko proiektua
42.000 €



Izaskun aldapako
euri urak biltzea
215.000 €



Amarotz,
estalkia
484.000 €



Iurramendiko
berdegunerako
proiektua
30.000 €

El Ayuntamiento dispondrá de casi 6,6 millones para acometer proyectos de gran calado y seguir trabajando las bases de los proyectos de futuro.

HERRITARREN PROPOSAMENAK AURREKONTU PROIEKTUAN TXERTATU DIRA



Este año el proceso de presupuestos participativos se ha modificado y ampliado a todo el año, de manera que se ha trabajado de forma paralela y conjunta entre responsables políticos, técnicos y ciudadanía. Se han establecido las prioridades y analizado propuestas siguiendo los focos marcados junto a la población tolosarra.



Aurten, aurrekontuak lantzeko metodologia aldatu egin da eta urte osora zabaldu da. Herritarrekin batera lehentasunak eta arreta-guneak zehaztu dira eta proposamenak landu dira lehentasun horiei erantzuteko. Herritarrekin landutako ondorengo proposamenak jaso dira aurrekontu proiektuan, lehentasun-gaien arabera sailkatuta.

- **Administrazioa:** UDATE zerbitzua indartzea eta zerbitzuen gida berritzea.
- **Zaintza komunitarioa:** Zaintzaren alorrean lan egiten duten eragileen lana ezagutarazteko Boluntario Azoka indartu eta zainzaileen zaintzarako proiektua garatu.
- **Osasuna eta bizi ohiturak:** Kaleen zaharberitze guztietan oinezkoek lehentasuna: lurramendiko berdeguneko proiektua, espazio libreetan ekintzak antolatzea

eta kirol instalazioak egokitzea (Usabal 3. fasea).

- **Bertakoa:** Kulturaren sustapenerako programazioa eta jaialdiak bultzatzen jarraitu: Kultura Plazara, ToloFolk...
- **Klima aldaketa:** Energia berriztagarrien sustapena, aldaketa klimatikoari aurre egiteko ekintza plana eta sentsibilizazio kanpainak gauzatu.
- **Gazteak:** Haur, nerabe eta gazteen inguruko diagnostia eta ekintza plana eta gazteen emantzipazioa errazteko aukerak.
- **Berdintasuna:** Emakumeen Etxeko ekintzak eta jarduerak programatu.

Zeinu hizkuntza Lenguaje de signos

ALEKA aldizkariko edukia zeinu hizkuntzan jaso du Udalak, Eskuaire elkartearekin lankidetzan. Aldizkariaren laburpena www.tolosa.eus helbidean duzue eskuragarri.

El Ayuntamiento ha recogido el contenido de ALEKA en lenguaje de signos. Consulta el resumen en www.tolosa.eus.

Partaidetza prozesuen urteko plangintza

Planificación de los procesos participativos para este año

LEHEN LAUHILEKOA

- **Emakumeen Etxea:** martxora arte jarraituko du partaidetza prozesuak.
- **Ostalaritza ordenantza:** herritarrekin eta ostalaritza sektorearekin bilerak egiten jarraituko da.
- **Haur gazte eta nerabeen diagnostia eta ekintza plana:** otsailean amaituko da diagnostia eta ondoren abiatuko da ekintza plana garatzeko prozesua.
- **Kultur etxea:** liburutegia bertan kokatzeko proiektuaren kontrastea egingo da herritarrekin.
- **HAP0aren aldaketa:** ospitalea kokatzeko eta San Estebango proiektuaren



garapenerako. Bi partaidetza prozesu egingo dira.

- **Deliberazio egitasmo ordezkatzaila:** gai zehatz baten inguruan herritarrekin hausnartuko da erronka zehatz bati elkarlanetik eta entzute aktibotik erantzuteko.

BIGARREN LAUHILEKOA

- **Auzo plana Urkizun.**
- **Auzo plana Aldaban.**

HIRUGARREN LAUHILEKOA

- **Iurramendiko berdegunerako proiektua.**
- **Irisgarritasun plana.**
- **Tren geltokiko ideia lehiaketa.**



Aurrekontuen txostena ikusgai eta eskuragarri Udalaren webgunean

Consulta y descarga el dossier sobre los presupuestos en la página web del Ayuntamiento



www.tolosa.eus



AZKEN BERRIAK

Actualidad

EGUNEKO ARRETA ZERBITZU INTEGRALA

Mendekotasun arriskuan eta mendekotasun-egoera arinean dauden 70 urte edo gehiagoko pertsonen zuzenduta, Eguneko Arreta Zerbitzu integrala jarriko du martxan Udalak. Zerbitzua Uzturre egoitzan emango da, eta saio ezberdinak eskainiko dira talde modalitatearen eta pertsonen beharren arabera.

Prebentzioa, autonomia eta harreman sozialak lantzeko helburua du proiektu berri honek, eta hiru talde-egituretan gauzatuko da: goizez egingo diren eguneroko saioetan, astean bi egunetan arratsaldean egingo diren saioetan, eta astean behin erdigunetik aldentuta dauden auzoetako biztanleekin egingo diren saioetan.

El nuevo Servicio Integral de Atención Diurna se llevará a cabo en el centro Uzturre, en tres grupos diferentes: Sesiones diarias por la mañana, dos sesiones semanales por la tarde y una sesión semanal para las y los habitantes de los barrios alejados del centro.

AZOKA LAGUNAK: 2.000 PERTSONAKO KOMUNITATEA

Urtebeteko epean, ia 2.000 pertsonako komunitatea eratu du Azoka Lagunak egitasmoak. Herritar askoren interesa piztu duen egitasmoa izan da, eta proiektua indartzen jarraitzeko, ekoizleen erakusmahaietako mantelak iruditegi berrira egokitu dira, baita ekoizle bakoitzaren datuak biltzen dituen mahai

gaineko fitxak ere. Webgunea ere berritu da, eta ekoizleen postuen deskribapena, produktuen zerrrenda, baserriaren kokapena, argazkiak eta harremanetarako datuak biltzen dituen orrialdea sortu da bakoitzarekin.

Ekintza gehiago biltzen dituen estrategia ere garatu du Udalak: normaltasun egoerara itzultzerako azokako espazioen antolaketa berrirako proposamena landu du azokagileekin, azokaren ordenantza berria garatuko du eta Gipuzkoako Azokan Sarearen eskutik, azokak komunean dituzten eronkei aurre egingo zaie, era koordinatuan eta elkarlanean.

Horren guztiaren helburua da azokaren digitalizazioa sustatzea eta etorkizuna bermatzea.

El proyecto Azoka Lagunak ha logrado crear en un año una comunidad de casi 2.000 personas. Se trata de un proyecto que ha despertado el interés de una gran parte de la ciudadanía, por lo que el Ayuntamiento sigue trabajando junto a las y a los productores nuevas estrategias y proyectos que impulsen la digitalización del mercado para garantizar su continuidad en el tiempo.



PERTSONEN ETA TXAKURREN ARTEKO ELKARBIZITZA HOBETZEKO LAN-LERROAK

Txakurren jabe diren eta ez diren tolosarren arteko elkarbizitza eta animalien jabetza arduratsua sustatzeko Txakur Eredugarria programa martxan da Tolosan 2021eko urriaz geroztik. Txakurren jabeen zuzendutako heziketa saioak egin dira, eta txakurrentzat egokitutako bi parke berri sortu dira: bat Arkauten eta bestea San Estebanen.

Txakurrentzako eremuak soilik izango dira bi gune horiek, hala beste eremu berde batzuk pertsonen aisiara bideratuko dira.

El Ayuntamiento de Tolosa continúa trabajando para garantizar y mejorar la convivencia entre las personas y los perros. Para ello, se han puesto en marcha dos iniciativas: el programa "Txakur eredugarria" para mejorar conductas y la creación de dos nuevos parques para perros.

Jabeei euren txakurrak hezteko baliabideak ematen zaizkie "Txakur eredugarria" programaren baitan



BIODIBERTSITATE GUNEA JASANGARRITASUNEAN URRATSAK EGITEKO

Biodibertsitatea lantzeko elkargune irekia sortu du Tolosako Udalak, tolosarrei gai honi buruzko erreferentziako gunea eskaintzeko eta jasangarritasunaren bidean urrats bat gehiago egiteko. Biodibertsitate guneak hainbat jarduera eskainiko ditu biodibertsitate-gaiei buruzko ezagutzak zabaltzeko eta herritarren interesa sustatzeko. Biodibertsitatearen alorrean Herritarren Zientzia Sarea osatzea ere xede du gune berriak.



El Ayuntamiento de Tolosa ha creado un punto de encuentro abierto a la ciudadanía para trabajar la biodiversidad, con el fin de ofrecer a las y los tolosarras un espacio de referencia sobre este tema y dar un paso más hacia la sostenibilidad por medio de la divulgación del conocimiento.

PAPER KALEA ERABERRITZEKO LANAK MARTXAN

Mugikortasun Plan berriaren baitan, Paper kalea zaharberritu eta irisgarriagoa eta seguruagoa bihurtzeko lanak hasi dira urtarrilean. Bi galtzadak bereizten dituen erdibitzailea kendu egingo da, errepide bakoitzari hiru metroko zabalera emango zaio eta kalea 30 km/h eremu gisa indartuko da.

Aparkalekuak ere hobetuko dira, oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko espaloiak handitu egingo dira eta pasabide berriak

Las obras de reforma de Paper Kalea tienen como objetivo mejorar la accesibilidad y la seguridad peatonal. Para ello se ampliarán ambos viales y las aceras, se crearán nuevos pasos para peatones y se renovará el pavimento del bidegorri. La calle pasará a ser zona 30 km/h.

sortuko dira. Bidegorriaren zoladura eta seinaleztapena ere hobetuko dira lanekin. Sasoi Eraikuntzak enpresa ari da lanak egiten, 5 hilabeteko epean amaitzea aurreikusten da, eta guztira 559.108,7 euroko (BEZa barne) kostua izango dute obrek.



BIRIBILGUNEA SAN FRANTZISKO ETA PEDRO TOLOSA PASEALEKUEN ARTEAN

San Frantzisko eta Pedro Tolosa pasealekuen arteko bidegurutzea biribilgune bihurtzeko hirigintza-lanak egingo dira. Behin betiko soluzio bat diseinatu da, oinezkoen ibilbideak, bidegorriak eta ibilgailuen zirkulaziorako galtzadak barne hartuta.

Biribilgunea egitean, San Frantziskoko eta Alliri auzotik datorren kaleko bi erreiki desagertu eta bakarra utziko da espaloiaren eta bidegorriaren zabalera handitzeko. Aldaketa horrekin, eremuko

bizi kalitatea nabarmen hobetzea espero da, bide-segurtasuna eta irisgarritasuna hobetu, zaratak gutxitu eta emisioak murriztuko direlako.

Asfaltatze lanak Usabalen hasiko dira eta ondoren Montesukuko paradetako bidean egingo dira; azkenik, biribilgune berria eraikiko da San Frantzisko eta Pedro Tolosa arteko bidegurutzean.

Se han iniciado las obras urbanísticas para convertir en rotonda el cruce del paseo San Francisco con la calle Pedro Tolosa. Se ha diseñado una solución definitiva que incluye y tiene en cuenta las zonas peatonales, el bidegorri y los viales para la circulación de vehículos.

APARKALEKU BERRIA SANTA LUTZIAN

Santa Lutzia eremuan eta Orixe eta Samaniego ikastetxeetara igotzeko bidean sortzen diren trafiko eta aparkaleku arazoei irtenbidea emateko eta Eusko Jaurlaritzak eremu horretan eraikiko duen institutuko eraikin berria dela-eta, galduko diren aparkalekuak berreskuratzeko eta aparkaleku kopurua handitzeko aparkalekua sortuko da Santa Lutzian. Herritarren beharrei eta eskariei erantzunez, beharrezko azpiegiturak sustatzeko

Se creará un nuevo aparcamiento provisional de 28 plazas en Santa Lucía para aumentar el número de aparcamientos en la zona, en respuesta a las necesidades y demandas de la ciudadanía.



helburuaren baitan kokatzen da aparkaleku berriaren sorrera.

Lanak hainbat fasetan egingo dira, eta guztira 28 plaza izango ditu aparkaleku berriak. Behin-behineko aparkalekua izango da, Udalak etorkizunean eremu osoa hartuko duen proiektu integrala garatu nahi duelako. Orain gauzatuko diren lanak etorkizunean garatu ahal izango den proiekturako baliagarriak izango dira.


IZASKUN AUZOA, IRISGARRIAGO

Igeralde kaleko 17 eta 19. atarrien parean eskaierak eta arrapala bat egiteko lanak abian dira azken asteetan. Lanen helburua irisgarritasuna hobetzea eta auzoko bizilagunei hirigunera iristeko bidea erraztea da. Aldi berean, Igeralde eta Bizkaia kaleen arteko bidegurutzea ere eraberrituko da.



TURISMO BULEGO BERRIAK IREKI DITU ATEAK

Eskualdeko turismo bulego berria martxan dago Tolosako Plaza Zaharrean. Turismo ardatz estrategikoa da Tolosako Udalarentzat, aukera bikain bat hiri ekonomia osatzen duen ekosistema osoa indartzeko. Turismoaren aldeko apustu horretan, Udalak bere jabetzakoa den bulegoa emakidan utzi dio Tolosaldea Garatzen.



Turistei harrera hobea eta integralagoa helburuarekin ireki zen bulego berria urtarrilaren 14an.

Turismo bulego berria Tolosako eskaintzaren eta nortasunaren erakusleia izango da, herriko zein eskualdeko kalitatezko turismo eskaintzaren isla.



TRIBUNA

Alderdien iritzia



Indarrez, bidea egiten jarraitzeko

Gobernu talde honek indarrez ekin dio legealdiko azken etapari, indarrez eta hainbat proiektuekin eskuartean, hitza betetzeko, herritarrekin hartutako konpromisoari erantzuteko. Argi ditugula gure lehentasunak, helburuak eta erronkak.

Tolosa eta tolosarren ongizatea hobetzeko proiektuaren garapenean jarraitzea da gure apustua eta jomuga datorren urtean; baita aurrean ditugun erronkei aurre egitea ere: administrazioaren digitalizazioa, herritarren arreta zerbitzuaren hobekuntza, trantsizio energetikoa... eta horretarako aurrekontu proiektu indartsua, errealista, egokia eta jasangarria garatu dugu, herriaren eta herritarren beharretara egokitutakoa, orainari eta etorkizunari erantzuteko helburuarekin, tolosarren bizi kalitatea hobetzen jarraitzeko.

2022 será el año de las inversiones. Se iniciarán las obras de muchos de los proyectos elaborados durante estos años; por tanto este equipo de gobierno llega a la segunda mitad de la legislatura con los deberes hechos, con muchos proyectos entre manos, con fuerza y unos presupuestos ambiciosos para llevar los proyectos previstos a cabo y cumplir así con los compromisos adquiridos con las y los tolosarras.



2022rako aurrekontuak ez die tolosarren beharrei erantzuten. Horregatik, hainbat hobekuntza proposatu genituen eta, horietako gutxi batzuekin, gutxieneko akordio bat lortu dugu. Tolosarron bizi baldintzak hobetzeko bidean jarri dugu gobernu.

Hala ere, ez da nahikoa. Gastu orokorra %28 igo bada ere, gizarte politiken inbertsioa soilik %1 handitu da zerbitzu berriak martxan jarri diren arren, eta kultura indarberritzeko iaz baino inbertsio txikiagoa aurreikusten da.

Gainera, ezinbestekoak dira bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatzea, zaintza eta kontziliaziarako dirulaguntzak, etxebizitza hutsei eta bizitoki beharri erantzuteko gertuko politikak, San Esteban eta Alde Zaharra biziberritzeko inbertsio publikoa indartzea eta lehen sektoreari bultzada ematea.

Urtero iragarri bai, baina egin ez diren hainbat proiektu aurrera eramango direla dirudi: Zumardi txikia, kultur etxea, Emakumeen Etxea Gorriti plaza, Abegiko lanak... Dena den, hainbat inbertsio falta dira: Amarotzeko zein Izaskun auzoko espaloien eraberritzea irisgarritasuna bermatzeko, Zabalarreta parkearen erabilera indartzea, Berazubiko Elkanokalearen hiriritzea, Olarraingo ingurunean premiazko lanak segurtasuna bermatzeko, landa eremuetan inbertsioak egitea...

Gobernuaren aurrekontua pittin bat osatzea lortu dugu, baina oraindik asko dago hobetzeko.



El buen hacer de todas las instituciones públicas tiene su momento álgido en la aprobación de los presupuestos anuales. Al aprobarlos en el último pleno del 2021 los partidos de gobierno manifestamos la voluntad de transformación y de cambio que queremos para Tolosa.

Aurrekontu hauetan, PSE-EEren borondate politikoa adierazten da: tolosar guztien bizi-kalitatea eta bizi-baldintzak hobetzea. Hori lortu ahal izateko azken bi urte hauetan lantzen joan garen proiektuak errealitate bihurtuko dira 2022. urtean zehar, tolosar guztion bizi-kalitatea hobetuz.

2022. urtean bultzatu nahi ditugu obrak hauexek dira: Usabal eremuko 3. fasea; Zumardi Txiki hiritarrentzat berreskuratzeko obrak; Emakumeen Etxea egokitzeko lanak; Gorriti plaza, Barrena eta Enperadore kalea osatzen duten espazioaren berritzea; urte askotako aparteko beharra: Renfeko apeaderoa; Amarotz auzoetxe alboko estalkia eta jolasak berdeguneak.

Son proyectos que garantizarán una mejora en la calidad de vida de todos. Como las políticas de bienestar social e Igualdad en las que aumentamos el porcentaje de gasto social sobre el total del presupuesto y prevemos más de 3 millones de euros para ofrecer servicios y ayudas como atención domiciliaria, servicio socioeducativo y psicosocial, ayudas de emergencia, subvenciones a familias, centro social, etc.

AGENDA

Agenda osoa ikusgai: agenda.tolosa.eus



OTSAILAK 11

"Amour eta toujours"
Ruper Ordorika
20:30ean, Leidorren



MARTXOAK 04

"Mundos para... lelos"
Oscar Terol
20:30ean,
Leidorren



MARTXOAK 11

"Ur bizitan"
Haatik dantza konpainia
20:30ean,
Leidorren



MARTXOAK 18

"Kubxidazu bidea, Ixabel"
Demode Quartet
20:30ean, Leidorren



MARTXOAK 25

"Lehendakari gaia"
Txalo produktzioak
20:30ean,
Leidorren

* Egungo osasun egoera dela-eta, aldaketak egon daitezke programatutako jardueretan
* Ekitaldi guztietan unean uneko prebentzio eta segurtasun neurri guztiak jarraituko dira

TOLOSATZEN

ESKOLA IREKIA

Bizitzarako konpetentziak lantzeko egitaraua antolatu da apirilera bitarte, herritarren trebakuntzara eta kapazitaziora bideratuta.

- "Zaintzailea zainduz" hitzaldia, otsailaren 20an
- "Arauk eta mugak familian. Nola ezarri era asertibo batean" tailerra, martxoaren 16an eta 23an
- Konpetentzia sozioemozionalen tailerra otsaila eta martxoa bitartean.
- Gatazken kudeaketarako giza abileziak lantzeko tailerra apiriletik aurrera.

INFORMAZIO GUZTIA WWW.TOLOSA.EUS HELBIDEAN



Plaza Zaharra 6A
20400 Tolosa, Gipuzkoa
Tel.: 943 654 466
gobernantza@tolosa.eus

Jendurreko arreta:
Astelehenetik
ostiralera:
07:15 - 14:15

